

"The Sting" film klasikoa Ernest Lluch

Amara Berriko Ernest Lluch kultur etxean "The Sting" filma proiektatuko dute astelehenean, hilak 9, 18.45ean. Paul Newman eta Rober Redford dira George R. Hill-ek zuzendutako filmaren aktore nagusiak. Pelikula 30eko hamarkadako Chicagoko ganster-en giroan girotuta dago. Bi protagonistek iruzurra egin nahi diote ganster ospetsu bati. George R. Hill-ek zazpi Oscar irabazi zituen pelikula honekin, zuzendari onenari eta pelikula onenari emandakoak, besteak beste.



Antzerkia

• Elena Irureta, Loli Astoreka, Aitzuea Goenaga eta Elizondo aktoreek "Hau paraderoa" antzeztuko dute. Antzoki Zaharrean, 20.30ean.

Kale antzerkia

• Kukubiltxo taldearen "Mamutxak" antzezlana. Antzoki Zaharrean, 8.00etan.

Zinema

• Alemaniako zinearen programa: Fatih Akin-en "Solino" filma. Antzoki Zaharrean, 20.15ean.

Kontzertua

• Mikel Ereñuxen kontzertua. Kurraal Auditorioan, 20.00etan.

Larunbata 14

Antzerkia

• La Tentacion eta Zitzania Teatre taldeen "Anarkista baten ezusteko heriotza" antzezlana. Antzoki Zaharrean, 20.00etan.

Zinema

• Alemaniako zinearen programa: Eoin Moore-ren "Pigs Will fly" filma. Antzoki Zaharrean, 20.15ean.

zioa: Winfried Bonengel-en "Führer Ex" filma. Antzoki Zaharrean, 20.15ean.

Literatur solasaldiak

• Antonio Tabucchiaren "Sostiene Pereira"-ri buruzko hitzaldia. Gidartzailea: Beatriz Monreal. Amarako Ernest Lluch kultur etxean, 18.00etan.

• "Ulises" obraren irakurketa. Juan Bas eta Barry Manley-k "Ulises" obraren zatiak irakurriko dituzte. Martuteneko Benartegi baserrian, 19.30ean.

Bideo foruma

• Francis Ford Coppolaren "The Godfather" filma. Amara Berriko Ernest Lluch kultur etxean, 16.45ean.

Igandea 15

Antzerkia

• La Tentacion eta Zitzania Teatre taldeen "Anarkista baten ezusteko heriotza" antzezlana. Antzoki Zaharrean, 20.00etan.

Zinema

• Alemaniako zinearen programa: Eoin Moore-ren "Pigs Will fly" filma. Antzoki Zaharrean, 20.15ean.

Irrati Ikastaroa

Otxoki Irrati Tailerrak ikastaroa antolatu du irratiko nahaste-mahaia nola erabili ikas-teko. Ikastaroa ekainaren 30etik uztailaren 30era izango da, astelehenetik ostiralera, 11.30etik 13.30era. Ikastaroari buruzko informazio gehiago jasotzeko edota izena emateko, Otxoki Irrati Tailerreko 943322990 telefono zenbakira deitu besterik ez dago



Donostia Elektronikoa 2003 lehiaketa prest

Urriaren 10, 11 eta 12an Donostia Elektronikoa 2003 musika lehiaketa egingo da. Lehiaketa hau kontratu diskografikorik ez duten 30 urtetik beherako sortzaile guztiei dago zuzenduta. Parte-hartzaileek maketa bat, hiru gairekin, aurkeztu beharko dute; musika elektronikoan oinarritutako lanak besterik ez dira onartuko. Lanak ekainaren 20a baino lehen bidali behar dira honako helbidera: Gin&Tonic Musical Productions Festival Elektronikaldia, Euskadi Etorbidea 53-4 A 20110 Pasaia. Bestela, Donostiako Udal Gazte Informazio bulegora ere igor daitezke.

